

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA EUSKAL KULTURGINTZAN: HASIERAKO URTEAK, 1973-1984

Mikel Aizpuru Murua
UEU, Bilbo, 2003

I

Iruzkindu behar dudan liburua *enkarguzkoa* da jatorrian, alegia, Udako Euskal Unibertsitateak egileari *agindutakoa*. Egilea, bestalde, historialari profesionala izateaz gain (hots, EHUko irakasle katedraduna) lana agindu dion erakundeko kide ezaguna da eta ardua handiak izan ditu bertan: Historia sailburu, Talde Eragileko kide eta erakundeko zuzendari (1996-1999), besteak beste. Badirudi, beraz, historia *ofizial* eta, gutxi-asko, apologetiko horietako baten aurrean egon gaitzkeela, hots, erakundearen sorrera heroikoa eta ibilbide arrakastatsuen loria kontatzera eta kantatzera bideratutako lan baten aurrean. Ez da horrelakoa, ordea.

Argi dezadan, dena den, neuk behintzat ez dudala ezer mota horietako historia-liburu *ofizialen* aurka, ofizioaren gutxienezko arauak errespetatzen badituzte, helburu edertzaleak gorabehera. Ez dezagun ahantz Historiaren sorrera, diziplina akademiko gisa, neurri handi batean mota horretako *enkarguzko* lanei zor zaiela. Desiragarria bezain beharrezkoa eta praktikoa litzateke, gainera, mota guztietako erakunde, elkarte, talde, enpresa eta enparauek zeinek bere historia *ofiziala* idazteko (*enkargatzeko*) ardura izatea. Aurrerapen izugarria ekarriko luke horrek gure Historiaren ezagutzan. Baina, jakina, Historia *ofiziala* profesionalak lantzen duten Historia oso

(osoago?) horren zati bat baino ez da, abiapuntu praktiko bat, nahi bada, ez besterik. Mikel Aizpururen liburu honen dohain nagusia, ordea, marra hori jota-pasa egitea da, Historia *kritikoaren* baitan barneratuz eta ekarpen zinez balios bat eginez.

UEU ez da, hain segur, Euskal Herriko historian egin den kultur erakunderik garrantzitsuen, eta XX. mendearen azken herenean ere, eta kulturaren esparrutik atera gabe, argi eta garbi bigarren lerro batean kokatu beharko genuke, beste hainbat erakunde *ofizial* zein *herritarren* atzetik. Tamaina da baieztapen horretara garamatzen irizpide nagusia: UEU txikia izan da beti, txikia aurrekontu eta baliabideetan eta txikia mugiarazi duen jende-multzooan. Aizpuruk, ordea, argi eta garbi frogatzen digu haren garrantzi historikoa bere txikitasunetik harantzago dextente hedatzen dela, besteak beste behatoki bereziki interesgarria delako Euskal Herriaren azkenaldiko historia ikeritzeko, kulturak eta politikak bat egiten duten lur-zerrenda mehar eta lauso horretan. Eta hori da, hain zuzen ere, liburuaren bigarren dohain nabarmena: UEUren historia testuinguru zabal eta konplexu batean kokatzea, non eta UEUren sorrera eta iraupena Euskal Herriaren historia intelektualaren osagai beharrezkoa bihurtzen den bi ardatzetan gutxienez: unibertsitatearen (edo, nahiago bada, goi-hezkuntzaren) historia, eta euskararen berpizkundearen historia gau frankistaren ondoan.

Hirugarren ardatz bat ere nahiko garbi azaltzen zaigu gertakarien ostondoan: abertzaleen arteko (zentzurik zabaleanean) harreman korapilatsuak 70etan zehar, eta haien zatiketa sakona 1979tik aurrera, Gernikako estatutua onartzearen ondorioz. Hiru ardatz horietan mugitzen da egilea UEUren bilakaeraren giltzak zehaztu nahian eta hiruretan lortzen du argi berria ekartzea gure begietara, urte horietan Euskal Herrian gertatzen ari zenaz.

Horrela, Aizpururen kontaezan, UEU ez da mundutik at eta bere logika propioz mugitzen den ente autonomo bat, baina, era berean, ezta ere logika politiko orokor, orolesplikatzaile eta kupidagabe baten mirabe indargea, aldika ezker eta aldika eskuin jotzen zuen haize-erauntsiak gidatutako belaontzi apala. UEUren historia UEUkideen hautuen ondorioa da, baina zinez pertsona asko eta asko ikusten dira desfilatzen liburuaren orrietan barna, nor bere hautu eta asmoekin, aldakorrak eta kontrakorrak sarri, pertsona berberaren baitan ere, aldakorrak eta kontrakorrak, zer esanik ez, jokalekuaren ezaugarriak bezala. Agian apur bat exageratuz esan daiteke Aizpuruk belaunaldi baten kronika bat eskaintzen digula edo, gutxienez, balizko kronika baterako materialak. Hautuak hautu eta emaitzak emaitza, belaunaldi bat delako orrietan zehar ikusiko duguna: Parisko maiatzaren seme-alaba euskaldunak, erdarazko harlauzen azpian euskarazko hondartzaren bila.

II

Liburua hiru ataletan banatzen da, irizpide kronologikoen arabera antolatuak. Atal bakoitzak lau urte betetzen du, eta egituraren simetriak irizpide formalista baten susmoa zabaltzen badu ere, datuak ikusita alde guztietatik zaila dirudi besterik proposatzea.

Lehen atalean (1973-1977) UEUren sorrera eta lehen urratsak deskribatzen dira. Urterik *paristarrenak* dira, arestian adierazi dugun zentzuan. Alegia, urte horietan UEU, hiritar arruntak jaso izan duen irudi arruntari segituz, *subertsiorako unibertsitatea* zen, Beltzaren artikulu ezagun baten terminologia erabiltzeko, nahiz eta sasoi hartan, eta geroago ere, *unibertsitate paralelo* izan UEU *sistematik at* kokatzeko erabili izan den terminoa. Aizpururen meritua da irudi arrunt hori saskonki aztertzea, alea eta lastoa xeheki bereiziz. Beltzak berak, aipatu artikuluan, eman zion horretarako bidea, adierazi zuenean bai UEUn bai euskalgintzan, oro har, beti egon direla *ordenazko pentsamendua* onesten zuten euskaltzaleak. Baina Aizpururen azterketaren emaitzak askoz ere urrunago doaz, goitik behera kolokan jarriz irudi *subertsibo* neurri baten estereotipatu hori. Areago, esango nuke nik aski dela kapituluan zehar aipatzen diren protagonisten izenak ikustea argi eta garbi ondorioztatzeko UEUren sorrera eta lehen urteetako garapena batez ere euskaltzale katoliko eta fededunen eskutik etorri zela: Karlos Santamaria, Jean Haritxelhar, Piarres Xarritton, Joseba Intxausti, Manex Goihenetxe bera (Aizpuruk haren engaiamendu politikoaren berri ematen digu, baina inon ez du aipatzen fraidea izan zela eta, halaber, ez digu argitzen noiz sekularizatu zen); oro har, UEUren babesa eta laguntza eman zioten elkarte edo taldeek (Euskaltzaindia, Fededunak, Ikas, Jakin...) sasoi hartan konpartitzen zutena ez zen soilik euskaltzaletasuna, baizik eta ageriko kristautasun moderno eta *kontziliarra* (hots, Vatikanoko II. arekin bat eginez) non eta, politikari dagokionez, tolerantziatzeko giro liberal batean abertzaletasun mota guztiek zeukaten lekua, eskuin demokratikotik ezker muturreraino. Horrek esplikatzen

du, adibidez, lehen etapa honetan marxismoaren azterketari dedikatu zitzaion arreta berezia: urte haietako tipikoa zen fededunek marxista iraultzaileekin *elkarrizketa* ireki nahi izatea eta, orobat, marxismoa abertzaletasun berri batekin *uztatu* nahi izatea. Jatorrizko giro tolerante eta liberal hori da, nire irudiko, UEUren altxorrik preziatuenetakoa, haren sorrera neurri handi batean esplikatzen duena eta, areago, haren iraupena posible egin duena, historiak aurrera egin ahala gauzak beste modu batean formulatu baziren ere. Espiritu horrek jaiotzatiko inpronta batek bezala iraun duelakoan bainago.

Osagai *subertsiboak*, dena den, biziki nabarmenak ziren eta, ziur aski, behatzaile arrunt batentzako *ordenuzkoak* baino nabarmenagoak. Laura Mintegirengandik jasotzen den deskribapen zoragarria (48. or.) horren lekuko garbia da. Aipatzea merezi dute ere Pierre Bidartek eta Jesus Mari Larrazabalek *Zabal* aldizkariaren bitartez egindako kritika hiperrezkertiarrek (37. eta 49-50. or. hh.), bete-betean Parisko giro unibertsitario eta (orduan) iraultzailetik zuzen-zuzenean sortuek (ez dezagun ahantz sasoi hartan biak zirela Parisko unibertsitatean ikasle, bata Soziologian, bestea Filosofian). Bidartek UEUn “apaiz gehiegi” egotea kritikatu zuen, apaizek “ideologia zehatza zutelako” eta haien helburu nagusia “marxismoari aurre egitea” zelako; halaber “intelektualisma”, “elitsismo” eta “apolitismoa” kritikatu zituen, UEUren politizazioa aldarrikatuz. Larrazabalek, bere aldetik, “humanismoaren erretorika” kritikatu zuen, haren orde “teoria zientifikoa” proposatuz, hots, marxismoa, era berean “oligarkiaren mirabeei” unibertsitatean sarbidea ukatuz eta horien orde “proletargoaren” erabateko hegemonia aldarrikatuz. Badirudi mota horretako

jarrerek eta mintzoez, neurri batean bederen, harrera beroa zutela orduko UEUko partaide gehienengan, horrek besterik ez baitu esplikatzen Uztaritzeko bi agirien (1975 eta 1976, 48-50. eta 58-60. or. hh.) tonu politiko militantea, kultur-kezka espezifikoa aski urrunda.

Aizpuruk hirugarren faktore bat ere seinalatzen digu, nire gusturako gehiegizko garrantzia emanez: Hegoaldean bizi zen giro antifrankista gero eta biziagoa. Hartara, artoski aztertzen ditu 60etako bukaeran eta 70etako hasieran euskaltzaleen eskutik sortutako kultur ekimen nagusiak (18-27. or.). Informazio baliosa da baina, funtsean, hau baino ez du frogatzen: frankismo garaian Hegoaldean unibertsitate-mailan ganorazko ezer egiteko ezintasuna. Ikastolen kasuan ez bezala, goizekuntzaren mailako ekimenak nekez gaintitzen zuten *kultur asteen* formatoa eta oztopo ia salbaezinak aurkitzen zituzten hortik gora jarraitzeko. Nire ondorioa da, beraz, UEUren sorrera eta arrakastaren arrazoiak Iparraldeko giro eta baldintzetan aurkitu behar ditugula, gorago iruzkindu dudanaren ildotik, eta ez direla, inola ere ez, Hegoaldeko dinamika baten segida Iparraldeko *santutegian*, Aizpururen testuak inplizituki iradokitzen duen bezala. Horrek ez du ukatzen, dena den, hegoaldetarren ekarpen handia eta euskararen historia soziala halabeharrez begia zazpi lurraldeen gainean hedatuz idatzi beharra. Baina UEU Iparraldeko sukaldean egosi zen, Hegoaldeko osagai batzuk lapikora joan baziren ere.

Faktore guztien emaitza pendulua bitartez irudika daiteke, metafora arrakastatsu bat neureganatuz, edo, nahiago bada, porruptata lapiko baten bidez. Alegia, Iparraldeko lau urteetan berdin ikusiko dugu UEU mota

guztietako babes instituzional eta errespetagarritasunezko zeinu oren bila, edo manifestu sutsu eta iraultzaileak lau haizetara zabaltzen. Berdin *maisu handiei* (eta errespetagarriei) deituz, zein espontaneismo anarkiazale gogorrena bereganatzen. Berdin Koldo Mitxelena bat bide posibilista estatutario eta erreformazale baten onurak predikatzen, errespetoz inguraturik, zein orduko Oskorriren kantaldi bat boikoteatzen, istilu latzen artean, hain zuzen ere aski *borrokalari* ez izateagatik. Halakoak ziren sasoiak, halakoa giroa, baina, ez dezagun ahantz, Aizpuruk ezer argi eta garbi frogatzen badu hauxe dela: UEUn, hasiera-hasieratik, oso mota desberdinetako jendea batzen zela. Porruak eta patatak, plater berean.

III

Aurreko atalean marraztu ditugun ezaugarriak iraukorrak izan dira UEUren historian eta, gutxi-asko, berdintsu aurkitzen dira ondoko bi aldie-tan (1977-1980 eta 1981-1984). Nola-bait esateko, UEUren osagai *organikoak* liriateke, edo metafora modernoago bat erabiliz, bere *kode genetiko*a. 1977tik aurrera aldatzen dena, batez ere, jokalekua da. Bigarren aldaketa erabakigarri bat tamainari dagokio: UEUn dexenteko hazkundera gertatu zen eta horrek antolaketa-arazoak lehen-lehen lerrora ekarri zituen behin eta berriro. Bi ardatz horiek dira egituratzen dutenak gertakarien kate luzea, Aizpururen testuan hain argi eta zehatz kontatua.

Bigarren atalean lantzen den etapa (1977-1980) UEUen aldirik nahasiena da. Funtsezko datua Espainian zabaldu zen trantsizio politikoa zen. Anakronismoetan ez jausteko, gogora dezagun gutxienez 1980ra arte (data kontserbakor bat emateagatik) egoera

politikoa ez zela batere egonkorra. Eta gerora ingurune akademikoetan (eta zer esanik ez, politiko eta propagandistikoetan) trantsizio demokratiko eredugarri eta goitik behera negoziatu (*kontrolatu*) baten irudia erruz zabaldu bada ere, urte horietako euskaldunik gehien-gehienek (guztiek ez esateagatik) ez zekitela *nora* eramango zituen eguneroko dinamika politiko oldart-suak. Nire irudiko sentimendu hori gizartean orokorra bazen ere, zer esanik ez guri zuzenean axola digun esparruan, euskaldun unibertsitario gazte eta militanteenean. Horrek esplikatzen ditu orri artean agertzen zaizkigun hainbat protagonistaren iritzi aldakor-rrak eta memento bakoitzeko hautuak.

Testuinguru horretan borroka politikoak erabateko lehentasuna hartzen du eta kultur arazoak bigarren plano batera geratzen dira alderdi abertzale guztien estrategian, eskuinetik ezker-rrera; zer esanik ez, alderdi espainolen sukurtsaletan, zeintzuen diskurtsuetan euskara ez zen modu erretorikoan ere agertzen. Ildo horretan, Euskal Barruti Unibertsitarioa da, euskara bera baino gehiago, unibertsitarioen mobilizazio-eragile nagusia. Euskarak, gainera, UEUn baino areago, urte horietan sortzen ari zen EHUn beteko zuen lekuaz ziren eztabaida nagusiak: zer da Euskal Unibertsitate? Nola sartuko da euskara unibertsitatean? UEUren etorkizuna baino areago EHUren izaera eta ezaugarriak ziren eztabaidagai. Halaber, EAJren estrategia paktista eta estatutuzalea indarra hartzen doan neurrian, euskaltzale militanteen artean zatiketak eta mesfidantzak gogortzen doaz. Baina jelkideen artean ere gauzak ez zeuden garbi zedarrituta: Santamaria, Mitxelena, Etxenike, Banderes... urte horietan jarrera elkarrizketzaileetan ikusten ditugu, edozein talde euskaltzalerekin kolaboratzeko

prest, nahiz eta beraien ikusmolde funtsean gradualista hasieratik oso urrun egon ezkerreko sektoreen esperantza agian puztuetatik. Baina ziur aski egia da, baita ere, ordurako mesfidantzaz ikusten zutela mugimendu euskaltzalearen erakundetze indartsu bat. Ildo honetan esanguratsua da Aizpuruk azaleratu duen *Etxepare asmoa*, erakunde euskaltzale autonomo eta indartsu bat osatzeko lehen saiotzat jo behar duguna (1977; 106-18. or.), geroago etorriko diren beste hainbaten lehen aztarna. Esanguratsua da, diot, Aizpuruk harremanetan jartzen duela ko “Eusko Ikaskuntza berpizteko egindako ahaleginekin” (107. or.). Ikerketalerro interesgarria litzateke, garbi baitago jeltzaleak askoz ere erosoago sentitzen zirela Eusko Ikaskuntza batean (hots, inolako osagai *subertsiborik* ez zeukan elkarte batean) UEUn baino, hartan euskararen presentzia askoz ere txikiagoa bazen ere. Dena den, Aizpuren ondorio nagusiak bi izan daitezke: bata, 1980-81era arte ez dela gertatzen jeltzaleen eta hainbat talde euskaltzalearen arteko ageriko borroka, eta bigarrena, UEU borroka-giro horretatik kanpo geratu zela gutxienez 1984ra arte (167. or.), hots, UEU EHU barruan nolabait integratzeko saio guztiek porrot egin arte. Alegia, eta gorago aurreratu dugun bezala, urte zinez nahasiak izan ziren, baina UEUk lortu zuen, neurri handi batean behintzat, bere jatorrizko giro pluralari eta toleranteari eustea, gutxienez 1984ra arte.

UEU bera, bestalde, 1977tik aurrera dexende hazi zen, baina beti oinarrizko txikitasunaren barruan. Ildo honetan oso pertinenteak dira Aizpuruk tartekamarteka sartzen dituen iruzkin ugariak: Hegoaldera etorrita ere, hots, ikasle-masa handi baten bihotzera, UEUk ez du lortzen erakunde marginal bat iza-

tera kondentatzen duten oinarrizko kopuru batzuk gainditzea. Horren ifrentzua da ikastaroen trinkotasun eta kalitate gero eta handiagoa, bulegoaren profesionalizazio eredugarria, argitalpenen sorrera eta ugaritzea, aurrekontuaren emendatzea... Urte horietan (1977-1980) UEUk unibertsitate-tankera irabazten du, nabarmen, bere jatorrizko estilo erdi anarkista eta festazaleari uko egin gabe, hala ere. Eta 1980tik aurrera, argi eta garbi, leku baten bila abiatzen da Gernikako Estatututik sortutako erakunde berriekin negoziatuz. Izan ere, alor honetan ere Aizpuruk gogor finkatutako irudi faltsu bat desegiten du, alegia, UEU *betidanik* ezker abertzalearen esparruan kokatzen zuena, hots, definizioz ia-ia 1979tik aurrera sortutako botere autonomikoarekin lehia kupidagabea. Aitzitik, frogatzen du UEUko zuzendaritza beti izan dela jakitun bere irudi publikoak ildo hori bultzatzen zuela eta ahalegin kontzienteak eta etengabeak egin dituela arazo hori gainditzeko. Dena den, egoera politiko orokorrak bere legeak ezarri ditu eta, frankotan, ahalegin horiek estalita geratu dira.

Puntu honetan berriz ere azpimarratu behar dugu UEUren jatorrizko aniztasuna. Alegia, UEUko partaide arrunten artean ziur aski gehienek neurri batean edo bestean beren burua ezkertiarizat irudikatuko bazuten ere, ez dezagun ahantz aldi honetan guztian UEUren zuzendaria apaiz bat zela, Martin Orbe, eta UEU bera Euskaltzaindiaren babespean antolatzen zela, aita klaretarren egoitza batean. Bestalde, liburu honek deskribatzen digun aldi osoan ez zuen inolako arazorik izan ezein botere publikorekin harremanetan jartzeko eta tratu adeitsu bat jasotzeko, bai Diputazioekin zein Eusko Jaurlaritzarekin, Nafarroako gobernuarekin edo Iruñeko Udalarekin.

Areago, Espainiako Ministerioetatik ere ez zen inoiz kezarik entzun.

Bada puntu bat nire ustetan apur bat oharkabean pasatzen dena liburuan, espresuki seinalatuta etorri arren: 1980. urteak “belaunaldi berri baten agerpena erakusten digu UEUren zuzendaritzan” (131. or.). Aldaketa hori, nire ustetan, ziur aski ez zen soilik zuzendaritzakoa, oro har UEUKide aktiboena ere, baina ez dirudi inolako berdefinizio ideologikorik ekarri zuenik. Aldiz, bai erakusten du UEU ez zela izan udaberri-gau bateko ametsa, aitzitik, gazte unibertsitario euskaldunen artean bazela oinarri sozial autonomo bat, alderdi politikoen dinamikatik kanpo, UEU bezalako elkarte bati eusteko lain. Hots, belaunaldi bat joan, beste bat etorri. Eta belaunaldi berri horrek bi helburu jarri zion bere buruari: lehenengo eta behin, UEU bera indartzea, hobetzea, gero eta gehiago unibertsitate izaera ematea; eta, bigarren, sortzen ari zen EHUrekin nolabaiteko integrazioa negoziatzea. Izan ere, kide berri hauen osagarri nagusietako bat da aldi berean UEUKide eta EHUKo ikasle/irakasle izatea. Eta UEU unibertsitate *ofizialaren* alternatiba irudikatzekeo tentazioa beti present egon bada ere, Aizpurren datuen argitan esango nuke jarrera hori inoiz ez dela seriozki kontenplatu UEUren zuzendaritzan.

Negoziatzeko deliberoa, dirudienez, mementorik txarrean etorri zen. Aizpurrek artoski deskribatzen digu euskaltzaleen artean 1981. urte inguruan gertatu zen zatiketa gogorra (147-152. or.), eta ederki azpimarratu du kontua ez zela izan soilik arazo politiko bat (hots, indar politiko estatutista eta antiestatutisten arteko talka): kultur arazoek badute beraien autonomia eta, adibidez, Mitxelena-UZEI afera (149-150. or.) nekez esplika daiteke soilik termino politikoetan. UEUren ka-

suan esango nuke azpimarratu behar-ko litzatekeela giro politikoa guztiz kontra izan arren, eta kultur arazo espezifikoak tartekatzen baziren ere (Euskaltzaindian, AEK edo UZEI kultur elkarteetan, ororen buru EHUn...), UEU gai izan zela eragile guztiekin harreman onak mantentzeko. Adibidez, 1983an UEUK diru-laguntzak jaso zituen bai Eusko Jaurlaritzatik, bai Nafarroako Gobernutik, hiru Diputazioetatik edo Bilboko Udaletik, besteak beste (166. or.). Eta horiei esker iraun ezezik, hazi egin zen, bere egitura eta ikastaroak hobetuz. Baina kudeaketa onak diru-apurrekin mirariak egitea lortu bazuen ere, irauteko moduko laguntzak ziren, ez gehiago. Benetako frogarria EHUrekin eraman zen negoziazio luzea izan zen.

Aizpurrek atal oso bat dedikatzen dio negoziazio horren gorabeherak esplikatzeari (170-187. or.). Integrazioaren ideia esplizituki formulatuta zegoen 1978tik (172. or.), baina 1981era arte ez ziren zabaldu negoziazio formalak, nola edo hala 1984ra arte luzatuko zirenak. Orri artean protagonista asko agertzen bada ere, J.M. Etxenike iruditzen zait bereziki aipagarria, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza eta Kultura sailburua zen bitartean Larraonako ikastetxea bisitatu baitzuen 1983ko uztaillean, negoziazio horiei bultzada eder bat emanez. Haren jarrerak eta proposamenak bazuten oihartzunik UEUKo hainbat kide kualifikaturen artean, baina, funtsean, ez ziren ezertan gauzatu. Formula desberdinak saiatu baziren ere, azken emaitza porrot osoa izan zen. Eta horrek bai, liburu honetan bertan sumatu dezakegunagatik ere, horrek giroa gaiztotu zuen UEUKideen artean, ordura arteko bere historia guztian ez bezala: hainbat artikuluko zorrotz irakurri ahal izan ziren euskal prentsan 1984ko udazkenean eta, ziur

aski, hainbat pertsonak haserre handiak hartu zituzten, Aizpururen kontae-ran horrelako ezer agertzen ez bada ere. Baina esango nuke tentsioa inoiz ez zela iritsi Euskal Herriko beste hainbat erakunde eta elkartetan sasoi horretan ohikoa zen mailara. Besteak beste, ziur aski, partaideen artean inork ez zuelako ageriko borroka batera jo nahi. Horretan ere UEUren *estiloa* kontuan hartzeko faktorea da. Baina hori, jada, hurrengo liburu baten gaia da.

Aizpururen balantzea (183-187. or.) nahiko argia eta orekatua iruditu zait eta ez dut funtsezko kritikarik eransteko. Alegia, faktoreak asko izan baziren ere, nagusiki honetan datza porrota: «UEUren historia eta jatorria bazter-tuta, praktikan desegitea eskatzen zitzaien, laguntzaren truke» (187. or.). Nik neuk beste hitz hauekin formulatuko nuke: UEUk uko egin behar zien bere osagai *subertsibo* guztiei. Eta alde batetik pentsa daiteke nahikoa normala dela erakunde publiko batek horrelako baldintzak jartzea, baina bestetik normala da ere UEUkideen masa zabal batentzako proposamena onartezina izatea. Masa horren atzean funtsean ezker abertzalea zegoela? Aizpuruk esaten digu nahikoa garbi dagoela mota horretako integrazio bat ez zela ezker abertzalearen sintoniako UEUkideen gustokoa izango, baina inon ez dago aztarnarik ondorioztatzeko porrota kontsigna politiko baten ondorioa izan zenik. Aitzitik, Aizpuru bera da seinalatzen duena badela faktore bat sasoi hartan gutxitan aipatu zena baina agian erabakigarria izan zena: EHUren Estatutuen eztabaida-prozesua eta hainbat UEUkide eza-gunek bertan jokaturako papera; horrek UEUren beraren etorkizuna baldintzatuko zuen. Edozein kasutan, garbi dago 1984tik aurrera arrazoi

gehiago egon daitezkeela UEU ezker abertzalearen esparruan kokatzeko aurreko hamarkadaren aldean, baina liburu honen ondoren etorriko omen den bigarren tomoan argituko zaigu hipotesi hori betetzen den ala ez.

Liburuaren azken atala 1984ko urrian Aralarko Santutegian ospatu zen barne-mintegira dedikatua dago (188-193. or.). Mintegi hori, bistan da, porrotaz hausnartzeko eta alternatibak proposatzeko egin zen. Kontaera zehatzaren ondorioa bera iruditzen zaigu bereziki aipagarria: «Ez dut uste funtsezko aldaketarik ekarri zuenik, UEU bizirik mantentzeko erabakia kenduta, hartutako [onaturako?] neurri asko ez baitziren gauzatu, arrazoi desberdinen ondorioz» (192. or.). Alegia, gorago esan dugunaren ildotik: bazegoen uni-bertsitarioen multzo bat UEUri eusteko prest; horien hautua, eta hautu hori gauzatzeko ahalmena dira, azken buruan, UEUren historiaren giltza, eta ez besterik.

Horien artean Baleren Bakaikoa iruditzen zait bereziki aipatu beharrekoa: UEUko zuzendaria 1983tik, bera izan zen azken negoziazioetan ardura nagusia izan zuena eta Aralarren eztabaidatu zen oinarrizko txostena idatzi zuena. Beraz, berari zor zaio, neurri handi batean, Uztaritzeko bi adierazpenak berrestea (190. or.) eta, hartara, hurrengo hamarkada baterako UEUren ezaugarri nagusiak finkatuta uztea. Baina, Aizpuruk ohartarazten digunez, oraingoan ere pertsona berri asko ikus zitezkeen bildutakoan artean: garbi dago UEUk ez zuela galdu jendea erakartzeko ahalmena.

IV

Liburuaz egiten dudan balantze orokorra, bistan da, ezin hobea da. Deitoragarria iruditzen zait kontaera 1984an

gelditzea eta irmoki eskatuko nioke egileari iragarrita dagoen bigarren tomoa lehenbailehen kaleratzea. Akats formal pare bat seinala daitezke, adibidez, “Euskaltzaindiako” orri berean (34. or.) bi aldiz idatzita ikustea; edo 35. orriko 49. oharra, zeinetan existitzen ez den “eranskin” batera igortzen gaituzten; edo 151. orrian adierazten zaigun “% 4” guztiz harrigarri bat (ziur aski % 40 da eman nahi den kopurua, edo horrelako zer bait), eta ziur aski hanhemenka aurki daitekeen besteren bat, baina oro har esango nuke testua ezezik argitalpena ere bikaina dela, zinez goragarria.

Historiako liburu bat da, historialari profesional batek idatzia, eta horrek baditu dohain asko (aipatu ditugu) baina baita morrontzaren bat edo beste: ez da testu irakurterraza. Besteak beste, testuinguruaren ezagutza biziki handia eskatzen du eta, agian, ugariegia dira aipatzen diren pertsonak, gertakariak, erakundeak, datuak... Irakurle arrunt batek kontraera ximpleago bat eskertuko luke, datu gutxiago eta baieztapen biribil gehiago. Eskematikoagoa. Baina, esana dugu hasieran, historia kritikoa da eskaintzen zaiguna, ez ipuin tankerako narrazio bat, eta ildo horretan nekez esan daiteke bere goi-mailatasuna akats bat denik.

Liburu osoa esaldi batean laburbildu beharko banu, hauxe hautatuko nuke: «UEUk bizirik jarraitu zuen, estu eta larri diru aldetik, beti itotzear, baina inoiz hondoratu gabe, Euskal Unibertsitatearen bidean» (168. or.). Horretan datza guztia.

Muntazko hutsune bakarra sumatu diot: euskara batuaren arazoa kontuan ez hartzea, ez UEUren aurrekari urrunak aipatzen direnean, ezta kontraeran zehar ere. Akats handia iruditzen zait zeren arazo hori guztiz zentrala baita

euskararen gizarte-historian XX. mendean. Besteak beste, gainera, guztiz zentrala da liburuan hainbat leku eta aipamen duten Euskaltzaindian eta, bereziki, Koldo Mitxelenaen baitan. Beharbada esanguratsua da aipamenik ez agertzea, zeren UEUk berak, argi eta garbi, hasiera-hasieratik euskara batua onartu eta bultzatu zuen naturaltasun osoz, zalantza izpirik gabe. Hain osoki non eta badirudien arazo horren kontzientziarik ere ez dela izan inoiz haren baitan. Baina, beharbada, jarrera horrek esplikatzeko du hasiera-hasieratik eta urte luzetan Euskaltzaindiak eskaini zion babes handia, zeren 1970etako Euskaltzaindian euskara batuaren arazoak buruhauste handien iturria izaten segitzen zuen eta, nire ustez, garbi dago Haritxelharrek, Mitxelena, San Martinek edo Satrustegik (hots, orduko UEUn protagonismo handia izan zuten euskaltzainek) begi onez ikusiko zutela euskara batuaren alde hain irmoki jokatzeko zuten elkarte bat. Egia den bezala euskara batuaren definizioari lotutako kontuek gaiztotu egin zutela euskaltzaleen mundua Mitxelena-UZEI aferaren garaian eta, areago, euskara batuaren arazoak pisu oso handia zuela EAJren hizkuntza-politika definitzeko orduan, Mitxelena moduko jendearen desespezziorako. Ez dut uste problema-multzoko hori batere ikertu denik, tamalez, baina behar handia dagoelakoan nago.

Beste hutsune bat, txikiagoa baina aipagarria, UEUren lehenengo hiru zuzendariak (Goihenetxe, Orbe eta Baikaikoa) eskaintzen zaien leku txikia da. Hau ere, ziur aski, UEUren *estilo*aren ondorioa da, alegia, egileak talde-lana hobetsi du ororen buru, pertsona nabarmen gutxi batzuen ekarpen erabakigarria erlatibizatuz. Zuzen dagoelakoan nago, baina hiru zuzendarien kasuan beraien jite pertsonalari buruzko

aipamen osoagoak egitea ez zen alperrikakoa izango, argigarria baizik.

Dena den, hutsuneak baino gehiago, bada liburu osoan zehar askatzen ez den korapilo bat, alegia, UEUren historia egitea, haren bidez historia orokorrago bati begiratu kritiko bat eman nahiz. Nire ustez Aizpuruk bikain gainditzen du bere buruari jartzen dion erronka, baina irakurlea beti zerbait gehiagoren esperoan uzten du. Adibidez, nola ikusten zen euskararen arazoa EHUn, ez soilik haren sektore abertzale/euskaltzalearen baitan, baizik eta bere osotasunean eta, bere-

ziki, euskara kultur hizkuntza gisa mespretxatzen zuen sektore indartsuaren begietan. Edo, baita ere, nola ikusten zen euskararen normalizazioa EAJn, bere zenbait kide esanguratsuren (Mitxelena, ororen buru) begietatik harantzago.

Bukatzeko, berriz ere baieztatu nahi dut liburu eredugarri baten aurrean gaudela, alegia, beste hainbat elkarte euskaltzaleren (edo bestelakorik) monografiak egiteko eredu garbia izan daitekeena. Betozen lehenbailehen.

Pruden Gartzia

